

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 20an hartutako erabakiaren laburpena: Ekintzaileentzako beken udal programaren 2026ko deialdia onestea

BDNS(Identif.): 891486.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/con-vocatoria/891486>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Pertsona fisikoak, adinez nagusiak, Vitoria-Gasteizen erroldatuak, ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda ez daudenak, beren kabuz ekonomia-jarduera bat gauzatzen ari ez direnak eta Vitoria-Gasteizko udalerrian enpresa bat sortzeko ekimena garatzen ari direnak (garapen-fasean dauden proiektuak bakarrik), baldin eta aurreko urteetan bekaren onuradun izan ez badira.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian jarduera ekonomikoa sustatzea, ekintzaileen kulturari eta ekintzaileei sostengua emanez beren enpresa-proiektua garatzeko garaian.

Deialdia norgehiagoka-prozeduraren bidez izapidetuko da, deialdi irekia eginez, aurrekontu-ekitaldi batean zehar eta dirulaguntza lerro bererako ondoz ondoko hautaketa-prozedura zenbait bultzatuz.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko otsailaren 20an, Ekintzaileentzako beken udal programaren 2026rako oinarriak onartu zituen.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntza deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2026ko udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidan erabilgarri dagoen saldoaren kontura.

Bakoitzak jaso dezakeen kopuruak muga hauek izango ditu: 2.650,00 euro 85 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabideetan; 1.150,00 euro gutxieneko puntuazioa (65 puntu) lortzen dutenetan. 66 puntutik 84ra bitartean lortzen dituzten proiektuei proportzio lineala aplikatuko zaie, bekaren kopurua kalkulatzeko. Dagoen kreditua nahikoa gertatzen ez bada, murrizketa proportzionala aplikatuko zaie proiektu guztiei, 65 puntu edo gehiago lortu dituzten eskabide guztiei erantzute aldera.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Argitaratzen delarik, eskabideak aurkezteko bi epe izango ditu deialdi honek:

Lehen epea, deialdiaren laburpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2026ko ekainaren 12ra artekoa (egun hori barne).

Bigarrena, 2026ko ekainaren 13tik 2026ko irailaren 25era artekoa (egun hori barne).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 24a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ